

AUDIOGIDA

Azkuna Zentroak sareko audiogida-zerbitzua jartzen dizu eskura, ikusiko duzun erakusketaren osagarri gisa. Aretoan barrena gidatuko zaituen materiala entzun edo doan deskargatu ahal duzu helbide honetan: www.azkunazentroa.eus

Informazio gehiago izateko, jo Erakusketa Aretoko atar-tean dagoen jendearentzako arreta-gunera.

Gure jardueretara iristea errazteko nahiz jardueraz entzumen-gaitasun hobeaz gozatzeko laguntza teknikoa behar izanez gero, eska iezaguzu. Azkuna zentroa espazioa irisgarria da pertsona guztientzat.

ERAKUSGELAREN ORDUTEGIA

Astelehenetan

Itxita

Asteartetik ostegunera eta igandeetan

11.00 - 20.00

Ostiraletan, larunbatetan, jaiegunetan eta jaiegun-bezperetan

11.00 - 21.00

Gabonetako ordutegi berezia

Kontsultatu web orrian

www.azkunazentroa.eus

info@azkunazentroa.eus

Plaza Arriquirar, 4 Bilbao

T 944 014 014



Koprodukzioa

CGAC CENTRO GALEGO DE ARTE CONTEMPORÁNEA



www.azkunazentroa.eus

ANGELA DE LA CRUZ



Homeless



ERAKUSKETA

2018 · 10 · 25 — 2019 · 1 · 20

Argazkia: Ione Saizar

ANGELA DE LA CRUZ

Homeless

Bere ibilbidean barrena, Angela de la Cruzek (Coruña 1965) pinturaren mintzairarekin esperimentatu du hogeit hamar urte luzez. Artistak ahalegina egin du hasieratik baliabidearen baldintzak eta mugak berriz zehazteko, eta pintura hartu du ardatz gisa, irudikatu ahal duenari begira. De la Cruzek mintzaira berezia garatu du, eta horri esker, haren koadroek kalitate eskulturala dute, pinturaren eta eskulturaren arteko mugak ezabatuta baitaude. Bata zein bestea erabiltzen du, adierazi nahi duenaren eta obra bakoitzak duen beharraren arabera. Hark esan duenez, «pinturaren mintzaira darabilen eskultura bat da, eta alderantziz. Pintura eta eskultura da».

Erakusketaren izena artistak armazoiak puskatuz osatu zuen lehenengo obretako bati dagokio: *Homeless (Etxe gabe)* (1996). Lanari eusteko eta margo-izaera dramatizatzeke inguruko espazioa erabili zuen lehenengo margolanetako bat izan zen. Tamaina handiko pintura horixka honen bastidorea zakarki hautsita dago, eta lurzorutik zutitzen da, erakusketako espazioaren iskinetik gu zelatatzen. Izenak berak adierazten duen legez, gure gizartean zikloz ziklo ikusten ari garen etxerik gabeko jendea irudikatzen du. Arrazoi politiko, ekonomiko, sozial, edo kulturalengatik eta gatazka belikoengatik mugimendu globaleko unean baikaude hamarkada hauetan. De la Cruzen obran maiz agertzen dira gaurkotasunarekiko kezka, desparekotasun soziala, egoera politiko, aldaketa klimatikoaren ondorioak, gerren irudiak eta atentatu terroristak.

Erakusketak ibilbide bat egiten du artistak 1996. eta 2018. urteen artean egindako lanetatik, eta zenbait lotura egiten ditu garai desberdinetakoak diren artelanekin, ordena kronologikorik gabe. Aurkeztutako artelan gehienak ez dira atzera begirako moduan Espainian erakutsi. Pieza hauen bitartez, artistak haren lanekin garatzen joan den kreole hizkuntza bakarra erakutsi nahi du; obra horiek gorputzaren presentzia edo absentiaren eta pinturaren beraren edukiontzi bihurtu dira.

De la Cruzek armazoiak gorputzaren luzapen moduan ulertu izan du beti, eta bere lan guztiak armazoiaren proportzioen inguruan jira-biran dabilta. Era tradizionalen gauzatzen ditu piezak, pintura minimalistaren historian ainguratutako gainazal monokromatikoa sortuz. Armazoiak hautsi zuen unean, haren margolanak istripuak izaten hasi ziren, anputazioak jasaten eta erakusketa aretoko edozein leku bereganatzen: izkina, lurzorua, zutik, zintzilik, hormaren kontra atsedean hartzen edo finkatuta. Honako hauek haren *Everyday Paintings (Eguneroko margolanak)* [1995 – 1999] dira; beste

pintura batzuekin elkarreaginean ari diren pinturak izanik, pintura-objektuak sortzen dituzte, giza sentimendu bat hartzen dute, euren izenen eta espazioan hartzen duten berariazko kokapenaren bidez: *Homeless, Ripped (Erauzita)*, 1999 eta *Painting and a Half, and a Parasite (Pintura eta erdi parasito batekin) I*, 1996. Horietatik, artistak *Commodity Paintings (Salerosketako pinturak)* [1997 - jardunean] deitu zituenetara noa: horietan seriearen eta errepikapenaren kontzeptuak esploratzen ditu, hainbat serietan, hala nola *Loose Fit (Nasaia)* [1999 - 2018], *Deflated (Hustuta)* [2009 - jardunean] eta *Damaged (Kaltetuta)* [1998 - 1999] izenekoetan.

Margolaria *Still-Life (Natura hila)* [2000 - 2001] seriea lantzen hasi zen, eta horretan etxeko altzariak bezalako objektuak txertatu zituen margolanetan. Obra horietan jorratu zituen lehen aldiz bolumena, masa eta pisua, berariaz eskulturaren ezaugarri direnak, eta orduz geroztik haren lanaren parte bihurtu ziren. Birziklatzea ere etengabe ageri da haren langintzan, adibidez, margolan zaharren armazoiak eta mihiseak margolan berriak egiteko erabiltzen dituen *Recycled Paintings (Pintura birziklatuak)* artelanean. *Clutter (Nahas-mahasa)* [2003 - 2005] seriea osatzeko, pieza-edukiontziak erabili zituen, poltsetan eta kaxetan armairuen eta beste pintura batzuen hondakinak erantsita.

Jarduerarik gabeko urte batzuen ondoren, De la Cruzek bere estudioa zabaldu zuen berriro 2009an, eta, artistak berak zehaztu bezala, `indarkeria sosegatua` islatzen duten obra berriak garatu; hori bera jaso dezake ikusleak ere. Alde batetik, urratu gabe maneatutako ehunezko pinturak ditugu, armazoirik gabe zintzilik edo plastikoz estalita. Lehenago, artelanak margotu egiten zituen lehenengo, eta gero urratu, emozioak gartsuago erakutsiz. Beste alde batetik, artista aluminioaren aukerak ikertzen hasi zen: margotu baino lehen kolpatzen edo itxuragabetzen zituen kaxak sortu, eta ondoren emandako pintura-geruzak patxadan dagoen artelana sortzen du, sosegatua. Aluminiozko kaxa horiek lurra eta horma konkistatu dituzte, euren hiztegi piktorikoa zabalduz.

Haren hizkuntza artistikoak umorea erabiltzen du izenetan, eta obra deigarriak aurkezten dizkigu, tentsio formala presentzia emozional sakonagoarekin konbinatuta. Bere obrek hasierako egoera bat erakusten dute forma baten eta bestearen artean, gainazalean itxura bat agertuz eta azpian egon daitekeen beste bat iradokiz. Piezak lurrean, horman edo beste obra batean finkatuta daude. Baina denborazkoak dira haiek ere. *Homeless* erakusketarako hautatutako lanetan, artistak maneatu ondoren artelanek erakusten duten urritasuna eta zaurgarritasuna agertzen dira, babesik gabe, pinturaren historia eta bizi dugun une honen historia euren bizkar hartuta.

Carolina Grau. Erakusketako komisarioa